



GERNIKA
1366-2016

**LITERATUR LEHIAKETA:
"GERNIKA SORTU ZENEKO
650 URTEURRENA"**

1.- PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 14 urtetik gorako guztiek parte har dezakete, kategoria bi hauetan:

- A kategoria. Egileak: 19 urtetik gorakoak.
- B kategoria. Egileak: 14-18 urte bitartekoak.

2.- GAIA, FORMATUA ETA LUZERA

Literatur lehiaketa hau Gernika hiribildua sortu zeneko 650. urteurrenaren (1366. apirilaren 28a) harira antolatu da. Aurkeztuko diren lanek Gernika-Lumo eta beronen eskualdea hartu beharko dute gaitzat.

Euskaraz baino ezingo dira lanak aurkeztu.

Eduki literarioa libreza izango da: nobela laburra, ipuina, narrazioa, poesia...

Lanak originalak, argitaratu gabeak (bide elektronikoetan argitaratutakoak barne) eta beste inongo lehiaketan saritu gabeak izan behar dira.

Azken hau ziurtatzeko, egileak zinpeko adierazpena egingo du, baldin eta lana lehiaketa honetan sarituz gero.

Lanen formatua:

- Paperezkoa. Formatu honetako lanak hirukoizturik aurkeztuko dira gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horretan ez da egilearen izenik jarriko, titulua baizik. Titulu bera idatziko da lanaren orri guztietako goiburuan. Tituluarekin batera, lanak zein kategoriatan parte hartzen duen adierazi behar da. Gutun-azalaren barruan beste bat sartuko da, eta titulu bera jarriko zaio. Bigarren gutun-azal horren barruan egilearen datuak adieraziko dira: izen-deiturak, telefono zenbakia, ogibidea, adina, helbidea eta NAN edo pasaportearen fotokopia.
- Informatikoa. Lana .pdf luzapena duen artxiboan aurkeztuko da, egilearen izenik adierazi gabe. Titulu jarriko zaio, dena den. Orrialde guztietako goiburuan ere titulu bera jarriko da. Tituluarekin batera, zein kategoriatan parte hartzen duen adieraziko da. Artxibo horrekin batera, bigarren artxibo bat ere bidaliko da, .pdf luzapenekoa. Bigarren artxibo horretan egilearen datuak adieraziko dira: izen-deiturak, telefono zenbakia, ogibidea, adina, helbidea eta NAN edo pasaportearen fotokopia.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinarazi behar dugu parte-hartzaileen datuak “650 Urteurrena-Literatur Lehiaketa” izeneko fitxategian sartu eta bertan erabiliko ditugula. Fitxategiaren ardura Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioak izango du zio honegatik: literatur lehiaketa honetan izena emandakoen gaineko informazioa izatea.

Datu hauek eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatu ahal izango ditu interesdunak, Kultur Etxeko Erregistroan (Foru Plaza, 2. 48300 Gernika-Lumo).

Lanen luzapena honako hau izan behar da: A kategorikoan hamar (10) orrialde gehie-
nez; B kategorian, ordea, bost (5) orrialde, DIN-A4 tamainakoak. Lanek ordenagailuz
idatzita egon behar dute, orrialdearen alde bakar bat erabilita. Lerrotik lerrora 1,5 aldea
utziko da eta Times New Roman letra tipoa erabiliko da, 12 puntukoa. Orriek zenbatuta
joan beharko dute.

Bete beharrekoak dira baldintza hauek guztiak; bestela, lana kanpoan geratuko da.

Parte-hartzaileek lan bakarra aurkeztuko dute.

3- NON ETA NOIZ AURKEZTU

Paper formatuan datozenak Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioan bertan

(Kultur Etxea, Foru plaza, 2 - 1go solairua).

Postaz, honako helbide honetara bidali:

Gernika-Lumoko Kultur Etxea

Literatur Lehiaketa

Foru plaza, 2

48300 Gernika-Lumo

Formatu informatikoan helbide honetara bidali: kultur-etxea@gernika-lumo.net

Lanak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 10ean zabalduko da eta martxoaren 10ean,
14:00etan, itxiko da. 2017ko martxoaren 10eko edo lehenagoko posta-ikurra daukaten
lan guztiak ere onartuko dira lehiaketara.

4.- LANEN JABETZA

Lanak beren egileen jabetzapekoak badira ere, lehiaketa honetan parte hartzeagatik,
Kultur Etxeak eskubidea du lehen argitalpena egiteko. Hala eginez gero, egilearen ize-
na aipatu beharko du ezinbestez. Dena dela, Kultur Etxearen eskubide horrek ez du
iraungo baldin eta lau urte igarota erabili ez badu. Saririk gabeko lehiatzaileek, epai-
mahaiak bere erabakia ematetik 30 egunetara eskuratu ahal izango dituzte beren lanak.

5.- SARIAK

A KATEGORIA: Lehena: 1.000 €.
Bigarrena: 600 €.

B KATEGORIA: Lehena: 500 €.
Bigarrena: 300 €.

Sariei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) aplikatuko zaie, indarrean
dagoen araudiaren arabera.

Sariak 2017ko maiatzaren 5ean baino lehen jakinaraziko da. Antolatzaileek deitu egin-
go diete saritutako egileei saria lortu dutela jakinarazteko. Sari-banaketa Gernika-Lu-

moko Elai-Alai aretoan egingo da 2017ko maiatzaren 12an.

Irabazleak ezinbestez bertaratu beharko dira sariak banatzeko ekitaldira, dirua jaso nahi izanez gero, ezinbesteko arrazoi batek eragotzi ezean, noski. Dena dela, ez etortzearen arrazoia justifikatuz gero, antolatzaileek justifikazioa nahikoa den ala ez erabakiko dute.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian, parte-hartzaileak baimena ematen du bere datuak Udalaren webgunean ager daitezen, hala epaileen aktaren nola jasotzen duen sariaren berri eman ahal izateko. Parte-hartzailea 18 urtetik beherakoa bada, baimena haren aitak, amak edo legezko ordezkari batek eman beharko du.

6.- EPAIMAHAI

Epaimahaikideak Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioak hautatuko ditu.

Lehiaketari buruzko erabakia eta epaimahaiaren osaketa epaitzaren egunean bertan jakinaraziko dira. Epaimahaia saririk ez ematea erabaki dezake, hala suertatuz gero.

7.- BESTE ARAU BATZUK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berez dakar oinarri-arau guztiok onartzea. Antolatzaileek, lehiaketaren onerako hala egokietsiz gero, behar beste aldaketa egin dezakete arauotan.

Halaber, zaindu egingo dituzte aurkezten diren lanak, baina ez dira haien ardurapean geratuko.